# DESTINOA AUKERATZEKO ESKUBIDEA DUTEN HAUTAGAIAK

# DESTINO-AUKERAKETA

## 1. ATALA: JARRAIBIDE OROKORRAK

1.1.- Destinoa aukeratzeko eskubidea I. eranskinean ageri diren oposiziogileek baino ez dute, destinoaz jabetzeko aukera duten puntuazioaren araberako izangaien behin-behineko zerrendan agertzen direnek hain zuzen ere.

1.2.- Aukeraketa hori izangaien behin-behineko zerrendak 2016-17ko EPEko Web-ean (https://ope2016-2017.osakidetza.eus) argitaratu ahala egin beharko da, eta arian-arian kategoriaka egin ere. Bestalde, barne-sustapeneko txandarik izanez gero, txanda irekikoak baino lehenago ebatzi ahalko dira.

1.3.- Destinoak aukeratzeko 15 egun balioduneko epea dago, dagokion izangaien behin-behineko zerrenda Osakidetzako Web-ean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

1.4.- Destino-aukeraketa elektronikoki egingo da, Osakidetzako 2016-17ko EPEko hautatze-prozesuko web-ean sartuta.

1.5.- Ez da onartuko paperean egindako destino-aukeraketarik edo aurreko atalean aipatutako euskarria ez den beste euskarri edo baliabideren batean egindakorik.

1.6.- Destino-aukeraketa egiteko, Osakidetzako web-ean identifikatu behar zara (https://ope2016-2017.osakidetza.eus/aOPE2017/eus/Login/cpX.jsp ); bertan honakoak tekleatu beharko dituzu: zure NANa eta parte hartzeko eskabidea egin zenuenean jarri zenuen sarbide-pasahitza.

1.7.- Gogoratzen ez baduzu, webean bertan eskatu dezakezu sarbide-pasahitza bidaltzeko izena ematean adierazi zenuen posta elektronikoko helbidera. Edonola ere, sartu ezin bazara, erakundera deitu behar duzu 945006350 telefonora. Bertan, pasahitz hori nola berreskuratu adieraziko dizute.

1.8.- Izangaien behin-behineko zerrendan dagoen ebazpena eta oinarri orokorrak eta espezifikoak arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu, bertan aurkituko baituzu behar duzun informazio guztia.

## 2. ATALA: DESTINO-AUKERAKETA ELEKTRONIKORA SARTZEA

2.1.- Sar zaitez 2016-17ko EPEko hautatze-prozesuko web-era https://ope2016-2017.osakidetza.eus

2.2.- Hizkuntza hautatu ondoren, sakatu pantailaren ezkerraldeko "kontsulta pertsonalizatuak" atalean.

2.3.- Aukeratu zein dokumentu-mota den: NAN edo AIZ (dagokizunaren arabera).

2.4.- Tekleatu EPEn izena emateko erabili zenuen NAN/AIZa, hautatu zure letra eta sakatu "bidali".

2.5.- Sartzeko kontrol-sistemak zure pasahitza eskatuko dizu. Gogoratzen ez baduzu, pantailaren behealdean baduzu atal bat, pasahitza bidaltzeko aukera emango dizuna, parte hartzeko eskabidean eman zenuen e-mailera.

2.6.- Identifikatu ondoren, eta kategoria batean baino gehiagotan parte hartu baduzu, hautatu destinoaz jabetzeko aukera duzun izangaiaren kategoria, bertan destinoa aukeratzeko.




2.7.- Aurreko atalean aipatutako izaera lortu baduzu, kontsulta pertsonalizatuen menuan atal gehigarri bat izango duzu. Menu horretako azken aukerak "Destino aukeratu" adierazi behar du, eta bigarren aukeran "Eskabidea" jarriko du.



# 3.- DESTINOAK ESKATZEA:

Destino-aukeraketari ekiteko, sakatu “Eskabidea”, “Destino-aukeraketa” aukeraren azpian.

“Eskainitako zentroak” atalean kategorian eskainitako destino guztiak daude. Destino-talde bakoitzean hauek agertzen dira:

- lanpostu funtzionala, kategorian bat baino gehiago daudenean.
- zerbitzu-erakundea edota zentroa
- destinoen kopuru osoa
- hizkuntza-eskakizunari dagokionez, derrigortasun-data duten destinoen kopurua
- hala badagokio, lanaldia

Adibidez:

Arabako ESI – Salburua (OZ), arratsaldez – 2 2. HE derrigorrezkoa izanik – guztira:-3 destino

Esan nahi du Salburuako osasun-zentroak guztira 3 plaza eskaintzen dituela eta horietatik 2k derrigorrezko 20 hizkuntza-eskakizuna esleituta dutela. 2 plaza horiek aipatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duten hautagaiei bakarrik esleitu ahalko zaizkie. Beraz, hautagai guztiek destino hau hautatu beharko dute, plazetako batek ez duelako derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik.




Zuk zentroetan eskaintzen diren destino guztiak aukera ditzakezu.

Igarotako derrigortasun-data dutenak bakarrik esleitu ahal izango zaizkie baldintza hori betetzen dutenei.

Gomendatzen da destino guztiak aukeratzea, zeren eta, destinorik esleitzen ez bazaizu, prozesutik kanporatuta geratuko baitzara, baldintzak betetzen dituzun destino bat, gutxienez, aukeratu ez baldin baduzu.

“Hautatutako zentroak” atalean, zeuk aukeratutako destinoen zerrenda agertuko da, hautaketaren lehentasunaren arabera sailkatuta (1 lehenengo aukerarako, 2 hurrengorako, etab.).

Destino bat aukeratzeko, sakatu nahi duzun destinoaren gainean zentroetan eskaintzen direnen artean, eta sakatu dagokion botoiaren gainean (ikusi aurreko irudian gorriz markatutakoa) aukeratutako destinoen zerrendara pasatzeko.

Destino-aukeraketa amaitutakoan, baldintzak onartu behar dituzu, “Zinpean edo hitz emanez adierazten dut” laukitxoa sakatuz, eta ondoren EZ AHAZTU “Baieztatu” sakatzea.




Jarraian, honako mezua agertuko da eta zure destino-aukeraketa automatikoki erregistratuta geratuko da Osakidetzako sistema informatikoan.




Gomendagarria da zure destino-aukeraketaren egiaztagiria gordetzea. Inprimagailurik ez baduzu, gerora egin ahalko duzu, dokumentu honetan deskribatzen den aukeraz baliaturik.

Erabili beheko irudian seinalatutako "egiaztagiria inprimatu" botoia.

**Ez erabili nabigatzailearen inprimatzeko aukera**.

**Aholkua: Zentroak aukeratzerakoan destinoetako testuaren osotasuna ez balu ikusiko, ikuska itzazu dokumentu honen bosgarren puntuan esandakoa.**

## 4.- DESTINOAK ALDATZEA:

Destino eskaera eginda, aldatu ahal izango duzu, destinoak aukeratzeko epearen barruan egiten baduzu.

Kontuan hartu zure azken aldaketa izango dela destino-aukeraketa baliodunа.

Destinoak aukeratzeko epea amaituta, kontsultarako aukera baino ez da gaituta egongo.

Sartu destinoen eskabidea egin zenuenean bezala. Destinoen eskabide-alta ondo egin bazenuen, hurrengo pantaila hau agertuko zaizu aukera hauekin:




Sakatu “Aldatu”

Pantailan une horretara arte egindako destino-aukeraketa agertuko da.

Hala nahi izanez gero, “Aukeratutako zentroak” ataleko zerrendan destinoak gehitu edo kendu ahal dituzu, edo berriro ere sailkatu zuk nahi duzun lehentasunaren arabera.

Amaitzen duzunean, “Zinpean edo hitz emanez adierazten dut” laukitxoan sakatu behar duzu, eta ondoren “Baieztatu” sakatu.

Informazio-ohar baten bidez adieraziko zaizu eragiketa behar bezala burutu dela.

## 5.- DESTINOEN KONTSULTA:

“Kontsulta” aukera beti egongo da eskura, destinoak aukeratzeko epean nahiz epez kanpo.

Sartu destinoen eskabidea egin zenuenean bezala.

Destinoen eskabide-alta ondo egin bazenuen, “kontsulta” aukera izango duzu. Sakatu bertan pantailan ikusteko.

Destinoak aukeratu zenituenean ezin izan bazenuen egiaztagiririk inprimatu, une honetan egin dezakezu horretarako dagoen aukeraz baliatuz.



**Eskainitako zentroak aukeratzea** / Selección de centros ofertados

**Aukeratutako zentroak** / Centros seleccionados

1.- arabako esia, salburua (o.z.), arratsaldez - 2 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-3 destino batzuk
2.- arabako esia, sansomendi (o.z.), arratsaldez - guztira:-1 destinu
3.- arabako esia, zabalgana (o.z.), arratsaldez - guztira:-1 destinu
4.- arabako esia, nanclares (kontsultategia), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
5.- arabako esia, la habana (o.z.), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
6.- arabako esia, lakuabizkarra (o.z.), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
7.- arabako esia, gopegi (kontsultategia), goizez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
8.- arabako esia, alegria (kontsultategia), 10-etik 17-ra - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
9.- barakaldo - sestaoko esia, san vicente (o.z.), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
10.- barakaldo - sestaoko esia, urban (o.z.), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
11.- barakaldo - sestaoko esia, zuazo (o.z.), arratsaldez - guztira:-1 destinu
12.- barakaldo - sestaoko esia, eag sestao, eag-eko lanaldia - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
13.- ezkerraldea - enkarterri - gurutzeko esia, mamariga - santurtzi (o.z.), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
14.- arabako esia, eag - etengabeko arreta, eag-eko lanaldia - guztira:-1 destinu
15.- arabako esia, abetxuko (o.z.), goizez - guztira:-1 destinu
16.- arabako esia, eag - etengabeko arreta, eag-eko lanaldia - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
17.- arabako esia, zaballa espetxea (o.z.), goizez - guztira:-1 destinu
18.- arabako esia, alde zaharra (o.z.), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
19.- arabako esia, estibalitzeko andre maria (anbulatorioa), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
20.- arabako esia, estibalitzeko andre maria (anbulatorioa), goizez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
21.- arabako esia, san martín - ariznabarra (o.z.), arratsaldez eta goizeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
22.- arabako esia, sansomendi (o.z.), goizez eta arratsaldeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
23.- debagoineko esia, antzuola (kontsultategia), goizez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
24.- debagoineko esia, bergara (o.z.), arratsaldez - 2 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-2 destino batzuk
25.- debagoineko esia, oñati (o.z.), arratsaldez - 2 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-2 destino batzuk
26.- tolosaldeako esia, billabona (o.z.), 10-etik 17-ra - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
27.- tolosaldeako esia, andoain (o.z.), arratsaldez - 2 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-2 destino batzuk
28.- tolosaldeako esia, ibarra (o.z.), 10-etik 17-ra - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
29.- donostialdeako esia, alza - roteta (o.z.), goizez eta arratsaldeko agenda irekita - guztira:-1 destinu
30.- donostialdeako esia, egia (o.z.), arratsaldez - guztira:-1 destinu
31.- donostialdeako esia, lezo (o.z.), goizez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
32.- donostialdeako esia, martutene espetxea (o.z.), goizez - guztira:-1 destinu
33.- donostialdeako esia, oiartzun (o.z.), goizez eta arratsaldeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
34.- donostialdeako esia, oiartzun (o.z.), arratsaldez eta goizeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
35.- donostialdeako esia, ondarreta (o.z.), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
36.- donostialdeako esia, ondarreta (o.z.), goizez eta arratsaldeko agenda irekita - guztira:-1 destinu
37.- donostialdeako esia, pasai san pedro (o.z.), arratsaldez - guztira:-1 destinu
38.- donostialdeako esia, zarauz (o.z.), 10-etik 17-ra - guztira:-1 destinu
39.- bidasoako esia, hondarribia, arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-2 destino batzuk
40.- goierri urola garaiko esia, azpeitia (anbulatorioa), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
41.- goierri urola garaiko esia, beasain (anbulatorioa), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
42.- goierri urola garaiko esia, beasain (anbulatorioa), goizez - guztira:-1 destinu
43.- goierri urola garaiko esia, legazpi (o.z.), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
44.- goierri urola garaiko esia, zegama (kontsultategia), goizez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
45.- goierri urola garaiko esia, zumarraga (o.z.), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
46.- debabarreneko esia, eibar, arratsaldez - 3 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-3 destino batzuk
47.- debabarreneko esia, ermua (o.z.), arratsaldez - guztira:-2 destino batzuk
48.- debabarreneko esia, eag elgoibar, eag-eko lanaldia - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
49.- debabarreneko esia, eag ermua, eag-eko lanaldia - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
50.- debabarreneko esia, torrekua, arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
51.- debabarreneko esia, torrekua, goizez - 2 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-2 destino batzuk
52.- uribeko esia, algorta (o.z.), arratsaldez - guztira:-1 destinu
53.- uribeko esia, las arenas (o.z.), arratsaldez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
54.- uribeko esia, leioa (o.z.), goizez - guztira:-1 destinu
55.- uribeko esia, zamudio (o.z.), goizez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
56.- transfusio eta giza ehunen euskal zentroa, t.g.e.e.z. bizkaia, goizez eta arratsaldeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
57.- bilbo - basurtuko esia, bolueta (l.a.u.), arratsaldez eta goizeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-2 destino batzuk
58.- bilbo - basurtuko esia, gazteleku (l.a.u.), arratsaldez eta goizeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
59.- bilbo - basurtuko esia, miribilla (l.a.u.), arratsaldez eta goizeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
60.- bilbo - basurtuko esia, rekalde (l.a.u.), arratsaldez eta goizeko agenda irekita - guztira:-1 destinu
61.- barrualde - galdakao esia, basauri - ariz (o.z.), arratsaldez eta goizeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-2 destino batzuk
62.- barrualde - galdakao esia, bermeo (o.z.), arratsaldez eta goizeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
63.- barrualde - galdakao esia, elorrio (o.z.), goizez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
64.- barrualde - galdakao esia, elorrio (kontsultategia), goizez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
65.- barrualde - galdakao esia, gernika (o.z.), arratsaldez eta goizeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
66.- barrualde - galdakao esia, igorre (o.z.), goizez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
67.- barrualde - galdakao esia, lekeitio (o.z.), arratsaldez eta goizeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
68.- barrualde - galdakao esia, ondarroa (o.z.), goizez - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
69.- barrualde - galdakao esia, eag bermeo, eag-eko lanaldia - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
70.- barrualde - galdakao esia, eag durango, eag-eko lanaldia - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
71.- barrualde - galdakao esia, eag ondarroa, eag-eko lanaldia - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-1 destinu
72.- barrualde - galdakao esia, zornotza (o.z.), arratsaldez eta goizeko agenda irekita - 1 2he derrigorrezkoa dauka(te) - guztira:-2 destino batzuk
73.- barakaldo - sestaoko esia, lutxana (o.z.), 10-etik 17-ra - guztira:-1 destinu

Pertsona sinatzaileak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari eskatzen dio destino-hautaketa hau onar diezaiola, Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2011 Ebazpenaren 14.1 oinarriaren arabera. Era berean, sinatzaileak, bere ardurapean, aitortzen du deialdian bereziki adierazitako baldintzak betetzen dituela, destino-hautaketa hauek egiteko, eta eskabidean adierazten diren datuak dokumentu bidez probatzeko konpromisoa hartzen du, hala eskatzen bazaio.

x ZINPEAN EDO PROMES EGINEZ ADIERAZTEN DUT

Eskabide honetan eskatutako datuak betetzean, berariaz adierazten dut Osakidetzak baimen osoa duela datu horiek Osakidetzako Pertsonaleko Hautaketa eta Horniketa izeneko Datu-Basean sartzeko eta ondoren tratatzeko. Baimen horren baitan sartzen da datu horiek erabiltzeko aukera, partehartzea eskatzen den lehiaketa-prozesuaren garapenerako. Sartzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta oposizioa egiteko eskubideak fitxategiaren arduradunarekin erabili ahalko dira: OSAKIDETZA-Euskal osasun zerbitzua, Araba kalea, 45, 01006 Vitoria-Gasteiz.

**Erregistratze-data** / Fecha de registro: 2019/09/03

frogagiria inprimatu

## 6.- DESTINO GUZTIAK EZABATZEA:

Destinoak aukeratzeko epean, aukeratutako destino guztiak ezabatzeko aukera izango duzu.

Horretarako, baduzu aukera bat kontsulta pertsonalizatuen menuan.

Ezabaketa ez da eraginkorra izango harik eta, sistemak eskatuta, birritan baieztatu arte.

GARRANTZITSUA: zure destino-aukeraketa ezeztatzen baduzu, ez ahaztu beste bat egin behar duzula. Bestela, epea igarotzen bada destino-aukeraketarik egin gabe, hautatze-probetan parte hartzeari lotutako eskubideak galduko dituzu.